

Weblog-ak: euskararen ikas-irakaskuntzarako tresna berriak

Agurne Aizpitarte, Natxo Guillén

Artikulu honetan ezagutarazi nahi ditugu azken urte hauetan hain entzute handia hartu duten argitalpen elektronikoak. Weblog hitzaz izendatzen ditugu Interneten argitaratzen diren bitakora edo eguneroko birtual hauek. Nork berea idazteko izaten dira eta era guztietako gaiak hartzen dituzte beren baitan. Egutero 35.000 berri argitaratzen dira. Kopuru horrek fenomeno hau hartzen ari den hedapenaren neurria ematen digu eta, luze gabe, ezinbesteko lekua izango du euskararen ikas-irakaskuntzan ere, gure ohiko baliabideen artean. Artikulu honetan gaia zertan den azalduko dugu eta ideia batzuk emango Weblog-ekin lanean hasteko; baina, argi ibil gaitezen!, “blogosfera” aurrera doa-eta hau idazten ari garen bitartean ere.

Definizioa

Interneten idatzi eta editatutako eguneroko interaktiboari deritzo *weblog*. Sarritan, motzagoa eta erosoagoa izateagatik “*blog*” hitza bakarrik erabiltzen da. Ingeleseko hitz horrek “bitakora” edo “nabigazio-koaderno” adierazi nahi du.

Hauek dira *blog*-aren ezaugarri batzuk: pertsonala da, dinamikoa eta estilo informalez idatzia. Pertsonala: nork berea idazten du ikuspuntu subjektiboa erabiliz. Batzuetan, *blog* pertsonal hauek “talde” baten barruan egoten dira, web batean, beste batzuekin batera *blog*-komunitate bat osatuz. Dinamikoa behar du izan. Eta, egutero-egutero idatzi ez arren, komeni da etengabe

gaurkotzea irakurleen interesa mantentzeko. Estilo informalez idatzi ohi da, lagunarteko solas-moduan.

.1:



Joxe Aranzabalen bloga: <http://www.goiena.net/blogak/faroa>

Jatorria eta oraina

Weblog hitza Jorn Barger-ek erabili zuen estreinakoz 1996an. 1999an 23 *blog* baino ez zeuden. “*Blogger*” eta “*Pitas*” enpresek edizio eta publikazio zerbitzuak doan eskaintzen hasi zirenean ikaragarri hedatu ziren *blog*-ak sarean. Hona hemen datu batzuk: 2004ean 10 miloi *blog* zeuden. Euskaraz, katalanez, gaztelaniaz eta galegoz, lau hizkuntzak batera hartuta 2.500 *blog* baino gehiago daude eta handituz doa kopuru hori egunetik egunera.

Euskal *blog*-ei dagokienez, euskaraz idatzitako lehen *blog*-a Jabi Zabala kazetariarena izan zen, 2003ko martxoan ibilian jarria. Helbide honetan dago: <http://www.sarean.com/>.

Gaur egun, *blog* bat martxan jartzeko ez da informatikan trebea izan behar. *Blog*-ak sortzeko tresnak edo txantiloiak doan daude Interneten. Blogger, LiveJournal eta DiaryLand dira *blog*-ak sortzeko webgune handienak. Hemen dituzu oso erraz, bost minutuan, bitakorak sortzeko tresnak eskaintzen dituzten beste batzuk: Diario Gratis, Zona Libre, Blogia.com (hau Blogger da baina gaztelaniaz), Acelblog, Blogsome eta Bitacorras.com.

Euskal Herrian, arlo honetan, ezinbestekoa da *aurki.com* aipatzea, *eibar.org* elkarteak 1999an abian jarri zuen *aurki* bilatzailea. 2005eko martxoan aurkeztu zen *aurki.com* berritua. Codesyntax enpresak egin zuen proiektua,

Gipuzkoako Aldundiaren Euskara eta Teknologia Berriak 2004ko deialdiko dirulaguntzarekin. Osoki software librean egina dago.

Euskal sarean sortutako lehen albistegi automatikoa da. Hona hemen eskaintzen dituen zerbitzu batzuk: Euskal Herrian sortutako lehen *feed* irakurgailua du. *Feed*-irakurgailu horrek “Jariora” izena du eta bertan 150 bat albiste-iturri dituzte gaika, 14 multzotan, sailkatuta.

Denak dira euskaraz idatzitako webguneak. Irakurleak, eskaintza ikusi ondoren bere intereseko web orriak aukeratuko ditu eta harpidetza egingo, oso modu errazean. Horrela, irakurleak aukeratu dituen webguneetan berriren bat dagoenean, automatikoki iritsiko zaio mezu bat. Horrela ez du egunero ibili behar bere intereseko web guztiak arakatzeko ea berriak dagoen ikusteko. Zerbitzu horri sindikazioa esaten zaio. *Blog*-ei dagokienez ere, webguneekin egiten den bezala egin daiteke. *Aurki*-n apuntatu zein diren gure *blog*-ik gogokoenak, eta, berak ohartaraziko gaitu gure gustuko *blog*-egileek zerbait idatzi dutenean, alferrikako bisitak egin ez ditzagun.

Aurki.com-ek euskal *blogosfera*-ren, *blog*-komunitatearen, ikuspegi bateratua eskaintzen du. Hau guztia bilatzailea izaten jarraituz.

Codesyntax enpresak, Japonian sortutako Coreblog tresnaren gainean egin du lana. Software libre eta doakoa da Coreblog. Codesyntaxek Coreblogen diseinua hobetu eta egokitu du *blog*-ak ere itxuraz moldagarriagoak izateko. Teknologia honekin sortu dira euskaraz, besteak beste sustatu: <http://www.sustatu.com/>, goiena: <http://www.goiena.net/>, honen barruan *blog* komunitate bat dago, eta *eibar.org* elkarteko web orria eta honen barruan dagoen *blog*-komunitatea.

Euskaraz idatzitako *blog*-zerrenda helbide honetan duzu: <http://www.bloglines.com/public/euskaraz>.

Unibertsitateetan ere sortu dituzte *blog*-ak euskaraz: EHU-n abian jarri duten *Berriemaile.com* ekimenean 300 bat *blog* daude, Deustuko unibertsitatean *Littera* proiektua dute... Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako kanpusean euskal bitakoragile batzuek sortutako taldea elkartu da aurten hirugarren urtez *blog*-en inguruan eztabaidatzeko eta informazioa elkarrekin trukatzeko.

Blog-motak

Xede askotarako *blog*-ak daude: komunikatzeko, ikasteko, nor bere burua edo enpresa ezagutzera emateko, harremanetarako... *Blog*-egileak idaztekoan xede hain desberdinak izan ditzakeenez, *blog*-ak ere horrelakoak izango dira. Ikus ditzagun hauetako batzuk:

Formatoari begira

Audioblog-ak, *photoblog*-ak, *moblog*-ak eta *bideoblog*-ak daude.

Audioblog-ak. – Zerbitzu honen bitartez soinua eta bideoa erantsi ahaliko dizkiogu geure *blog*-ari. Audiorako, mikrofonoa eta flash 7 programa baino ez dugu behar izango. Bideoa sartu nahi izanez gero *webcam*-a behar da. *Audioblog*arekin elkarriketak, ahozko iruzkinak eta artikulua editatu daitezke; mp3 eta *wab* artxiboak ere onartzen ditu.

Photoblog-ak.– Blogaren ardatza argazkiak direnean, *photoblog* izango dugu. *Fotoblog* eta *argazkiblog* hitzak ere ikusiko dituzue. Testua, irudi hauei buruzko iruzkinak, idazteko aukera dago eta ikusle/irakurleek ere *trackback*-a egiteko aukera dute. Zer da *trackback*-a? *Blog* bati beste *blog* batetik egiten zaion erreferentzia. *Weblog*-ak lotzeko modua da. Beste *blog* baten erreferentzia sartzen badugu gure *blog*-ean *trackback*-aren bidez, abisu bat helduko zaio iturriko *blog*-ari eta gure erreferentzia egiten dutenean guri helduko zaigu automatikoki abisua.

Photoblog-eko irudiak pertsonalak izan daitezke, gai bati lotuak... Eredu gisa ikusteko hemen duzue Jose Luis Irigoien argazkilariaren *photoblog* ederra: <http://www.eibar.org/blogak/irigoien>.

Irigoienek, batzuetan komentatu egiten ditu argazkiak, beste batzuetan, berriz, ez du ezer idazten. Argazkilaria izateaz gain argazkilaritza irakasten duenez, iruzkinen estiloa teknikoa da eta,aldi berean, oso didaktikoa.

Photoblog-etan idazten dena beti dago lotuta argazkiaren izaerarekin eta *blog*-egilearen estilo eta helburuarekin: norberaren baitakoa, errebendikati-boa, teknikoa, estetikoa, literarioa...


Euskaraz egindako beste adibide bat ikusteko Jabi Zabalen lana dugu. Horrek, bere gustuko argazkiak jartzen ditu, batzuk gaika sailkatuta, beste batzuk ez... Helbidea: <http://www.sarean.com/argazkiak/>.

Photoblog talde batenak ere badaude. Hemen duzu eredu bat: <http://www.unjourdanslavie.org/> argazkilari-talde baten argazkiak daude eta txat-a antolatzen da argazkiei buruz hitz egiteko.

Hauek dira *Photoblog*-ak osatzeko doaneko irudi editore ezagunenak: *Paint*, *Net*, *IrfanView*, *GIMP*, *Image Analyzer*, *Pixia*, *Easy Peg*, *Paint Studio Lite*.

Hurrengo programa hauek, txantilo errazak eta zerbitzu onak eskaintzen dituzte: *PixelPost*, *PhotoBlogger*, *Folderblog*, *Birch*.

.2:



Jose Luis Irigoienen bloga: <http://eibar.org/blogak/irigoien>

Moblog-a.– sakelako telefonoen bat-batekotasuna dela eta, gero eta gehiago dira sarean dauden denbora errealeko irudien galeriak. Duela urte batzuk Japonian hasi ziren sakelako telefono kameradunak sareari lotzen eta argazkiak bat-batean on-line erakusten. Eta gure artera heldu berria den arren, jadanik hitz egin daiteke fenomeno teknologiko eta sozial bati buruz, datozen hilabeteotan izugarri garatuko dena. Argazki horiek egiteko eta sarean editatzeko pausoak oso ondo daude azalduta web honetan: <http://es.movster.com> Ohartaraztekoa da, hala ere, sakelako guztiek ez dutela hori egiteko aukera ematen.

Bideoblog-ak.– Irudia editatu nahi baldin bada eta *blog*-ean erantsi, badago horretarako aukera. Nola egin daitekeen jakin nahi izatera, argibideak xehe-xehe idatzita daude Gemma Ferreres-en *tintachina* deituriko *blog*-ean. Helbidea: <http://tintachina.com/archivo/vidéoposts>.

VideoBlogRecorder programa da *bideoblog*-ak editatzeko erabilienetakoa, erraza delako.

*Idazleari,
blog-egileari,
begira*

Weblog pertsonalak eta *blog*-komunitateak edo... blogosfera?

1 *Weblog pertsonalak*. Egunerokoen tankerakoak dira. Oso subjektiboak. Iritziak emateko, hizkuntza ikasteko, zaletasunekin lotutako iruzkinak egingo dira: teknologia, zinema, literatura... Gai bakarrekoak barik, nahasiak: albisteak, kezkak, iritziak, sentimenduak, ipuinak, poemak, argazkiak... Komunikatzeko beste bide bat da.

2 *Blog komunitateak*. Komunitate horietan interesgune bat komunean duen jendea biltzen da. Blogosferan informazioa, iritzi eta pertsonen arteko katea eta lotura egoten da. Arestian aipatu dugun moduan, euskal komunitatea edo blogosfera sendotzen ari da.

Parte hartzea kontuan hartuta, *blog-komunitateak* bi eratan egoten dira antolatuta:

Batzuetan, *blog*-egile guztiek hartzen dute parte. Horrelakoetan, nor bere *blog*-a plazaratzen du eta, jeneralean, besteenak komentatzen. Eta *link*-ak egin dituzte iruzkinen iturria ikusi edota irakurri ahal izateko. Horrela, denen artean komunikazio-sare bat sortzen dute.

Beste *blog*-komunitateetan administrariet baina ez dute idazten eta editatzen eta besteek horien *blog*-ak irakurri eta forum bat dute iritziak emateko, besterik ez.

Gaiari begira

Profesionalen blog-ak eta *blog korporatiboak*. Enpresek sortutako *blog*-ak gero eta gehiago dira. Enpresa munduan konturatu dira *blog*-a izateak lagunduko diola enpresari bere bezeroekin harremanak izaten. Harremana azkarra, zuzena eta kostu gutxikoa da. Horren truke, jakingo dute bezeroen interesen berri eta, halaber, zer egin haien nahia asetzeko.

Jose Luis Orihuela-k, irakasle eta *blog*-egile adituak, hamar arrazoi eman zituen enpresek *blog*-a sortzeko, Gasteizko Miñaoko Teknologia Parkean egin zuen hitzaldian.

Hona hemen Orihuela-k emandako arrazoiak:

- 1 *Hurbiltasuna*.– Inportantea da enpresak hitz egin dezan. Horrek hurbildu egiten ditu bere bezeroengana. *Blog* bat erabiltzea enpresari aurpegia eta ahotsa ematea da.
- 2 *Ikusgaitasuna*.– Bilatzaileek biziki maite dituzte webguneak, ondo idatzita baldin badaude, eguneratuta eta lotura egokiekin. Kasu horietan, *blog*-ak sekulako erreminta dira enpresa ondo kokatzeko.
- 3 *Feedbacka*.– Kanpotik datozkeen iruzkinak informazio-iturri baliotsuak dira.
- 4 *Hedabidea*.– Zabalkundea egiteaz gain, enpresa komunikazio-bide bihurtzen da.
- 5 *Krisia*.– Hona hemen erreminta bat gehiago, krisi-egoerak kudeatzeko komunikazioaren ikuspegitik. Hedabideek zer esaten duten itxaron gabe, enpresak bat-batean erantzun diezaieke estutasun-egoerei.
- 6 *Formazioa*.– Enpresa etengabe ari da ikasten, eta horretarako ezinbestekoa du informazioa ondo kudeatzea.
- 7 *Eraginkortasuna*.– *Blog*-a da kanporatzeko hedabide naturala enpresaren Harreman Publikoen Atalarentzat eta baita Prentsa Kabinetearentzat ere.
- 8 *Eguneratzea*.– *Blog* bat modu egokia da webgunea eguneratuta edukitzeko.
- 9 *Leialtasuna*.– *Blog*-ak bitarteko egokiak dira komunitateak sortzeko. Bezeroei ematen bazaie erreminta bat harremanetan jar daitezten elkarren artean, horrek loturak sortzen ditu.
- 10 *Berrikuntza*.– Zure lehiakiderik berrizaleenak ere oraindik ez dauka *blog*-ik. Orain duzu aukera haren aurretik jartzeko (Iturria: Luistxo Fernández).

Bere hitzaldiaren luzapen-moduan, beste zazpi urrats aipatu zituen, proba egin nahi duten enpresentzat. Urrats horiek aipatzen ditu «eCuaderno»: <http://www.ecuaderno.com/archives/000452.php> *blog*-ean, non baliabide ugari zerrendatzen baititu, irakurleak ikusi eta proba egin dezan (Jardunaldiak: *blog*-ak eta enpresa).

Berak aipatutako puntu horiek gure euskaltegien esparrura ekar ditzakegu, *blog*-ak, tresna baliotsuak bilakatuz ikasleekiko hurbiltasuna, bezeroekiko ikusgaitasuna eta, orokorrean, feedback-erako, zabalkundea egiteko, prestakuntza eta berrikuntzarako.

Blog korporatiboen adibide batzuk:

Publizisten *blog*-a, Adspot, <http://blogia.com> helbidean, publizistak elkartzeko gune bat osatu dute. Bertan, beraien lanari buruzko kezka, informazioa... elkartrukatzen dute. Bestalde, edozein euskarritan egindako iragarkiak komentatzen dituzte profesionalen artean.

Hedabide elektronikoak: zer dakarte hedabide elektronikoek? Informazioaren demokratizazioa, interakzioa...?

Egunkari tradizional batzuk euskarri digitalera pasatu dira, baina aldatu duten bakarra formatua izan da. Horrelakoetan, kazetariak bere rola mantentzen du, hots, informazio-emaile bakarra da eta irakurlea irakurle “pasiboa”. Informazioa norabide bakarrekoa da: goitik beherakoa.

Egunkari batzuetan *blog*-egileak kontratatu dituzte albisteen gaineko iruzkinak egiteko. Iritzi-artikuluen pareko bihurtu dira post hauek (*post*-a: *blog*-aren “sarrera” bakoitza, idazten den unitatea). Irakurleak irakurri eta bere feedbacka edo iruzkina egiteko aukera dauka, baina beti ere irakurri duenaren gainekoa.

Badago beste jauzi kualitatibo bat beste hedabide berri batzuetan gertatzen dena. Hauek *blog* euskarrian egin dituzte eta egileek *blog* moduan aurkeztu dituzte. *Blog*-komunitateak osatu dituzte eta komunikazioak bi norabide ditu: berriemaile- idazle eta irakurle izan daiteke pertsona bera: “emirec”. “Emirec” hitza 1975ean erabili zuen lehenengo aldiz Jean Cloutier ikerlari frantziarrak. Hitz horrek adierazten du pertsona bera izan daitekeela batzuetan informazio-emaile eta beste batzuetan hartzaile komunikazio prozesuan. Interneten, *blog* formatuan gertatzen da horrela.

Horrek informazioa eta komunikazioaren demokratizazioa dakar.

Hemen aipatuko ditugu gurean ditugun adibide batzuk, baina gehiago daude:

Eibar.org-ek duen *blog-komunitatean* sortu dute “Volgako Batelariak”. Literaturari buruzko *blog* moduan aurkeztu zuten. Komunitate txiki bat beste handiago baten barruan kokatuta dago.

Sustatu.com hedabide elektronikoa *blog-komunitatea* ere bada. Bestalde, aukera ematen du edozein irakurlek informazioa bidali eta kazetari bihurtzeko.

<http://euskalherria.indymedia.org/> “argazki kamera digitala paseatzera atara eta artikulutxo bat bidaltzeko” eskatzen diete irakurleei: “Konta iezaiozu munduari zer gertatzen den zure inguruan” .

Gai beraren inguruan elkartzen da jendea. Honen adibide dugu *Ecoblogia* deiturikoa:<http://ecoblogia.blogia.com/> Amaia Marculeta, Josu Larrea eta Enrique Cobos-ek egin. Animaliak, ingurugiroa, ekologia eta solitaritateaz informazioa bildu eta mintzatzen dira.

Egitura

Blog-ean biltzen den informazio guztia ondo egituratuta gordetzen da, bakoitza noiz idatzi den azalduz. Interesgarria da *Blog*-egitura ezagutzea nahiz eta erraza ez izan dagoen aukera-zabaltasuna ikusita. Hemen saiatuko gara egitura orokor bat eskaintzen, “*blogeatzen*” hasten zaretenean aukera izango duzue azalpen hau osatzen joateko.

Orri nagusia: azken sarrerak edo postak ikusiko ditugu hemen. Zerrenda bat da eta azken sarreren hasierako zatiak irakurtzen ahal dira. Sarrera bakoitzean dagoen informazioa irakurtzen jarraitu nahi izanez gero klik baten bidez aukera ematen du *post* osoa zabaltzeko. Orri nagusiak pantailaren lekurik/zatirik handiena betetzen du.

Menua: *blog*-ak dituen atalak agertuko dira zutabe batean. Orri nagusiaren albo batean kokatzen da eta *blog*-ak eskaintzen dituen aukera ezberdinak ditu agerian. Atal ezberdinetara linkak egiteko aukera ematen du.

Informazioa: menuaren barruan, normalean egileari buruzko datuak azaltzen dira.

Azken mezuak: orri nagusian dauden azken mezuetara joateko linkak dataren arabera ordenatuta.

Azken erantzunak: sarrera ezberdinek izan dituzten erantzunak egilearen izena edo ezizena, data eta orduarekin.

Azken trackback-ak: *blog*-era heldutako azken “*trackback-ak*” agertzen dira.

Atalak edo kategoriak: *blog*-ak jorratzen dituen gai ezberdinen aurkibidea.

Fitxategiak: sarrera guztien aurkibidea hilabeteka edo urteka jarrita.

Permalinka: aurreko posten fitxategia da, lotura iraunkorrez osatutakoa. Sarreraren beheko aldean egoten da.

Blogroll-a: beste *weblog* batzuekiko loturen zerrenda.

Kredituak: *blog*-a sortzeko erabili diren elementuen erreferentziak eta laguntzaileen aipuak (unibertsitateak, enpresak, aurrezki kutxak,...).

Sindikazioa edo Feed-ak: webguneen informazioa esportatzeko moduan jartzen dira formatu horri esker. Horrela, *blog* bati buruzko informazio berriak ikusten ahal ditugu osorik bisitatu gabe.

.3:

Luistxoblog - Ingelesen Hilerria - Microsoft Internet Explorer

Archivo Edición Ver Favoritos Herramientas Ayuda

Atrás Búsqueda Favoritos Multimedia

Dirección <http://www.eibar.org/blogak/luistxo/eu>

jak portatilik izanda, eta barra, agertoki eta toki zabal horiekin, ez luke un arazorik izango. Nik uste dut egunen batean bisitatzeko aukera izaten presio ona hartuko duela tokiarekin Ricardok.

tu diren anonimoez gain, jakina, ez-blogari animoek holako zeezer antolatzeke le, zaila daukagu. Badirudi horientzat Elgetak ez duela balio ezertarako: bizitzeko ri txiki bat horrela mesprezatzeko, holako kasherismo mentala izatea ere , benetan flipatuta geratu naiz Sustatuko mezu pare honekin.

o konexioarekik, ederto asko dago Elgeta mapan kokatua, eta Interneten ere, o [Elgetako udala](#), edo [Goiena.net-eko Elgetako atala](#) ikusita, ea non duten holako multzorik.

i deskonektatua, urrun eta galdua? anda ya! Elgeta, blogisten hiriburua.

2004
Ezartza 2004
Ekaina 2004
Maiatza 2004
Apirila 2004
Martxo 2004

APRIL 2005

A	Az	Og	Oz	Ia	Ig
				1	2 3
4	5	6	7	8	9 10
11	12	13	14	15	16 17
18	19	20	21	22	23 24
25	26	27	28	29	30

SINDIKAZIOA

- [XML-en](#) English feed
- [XML-es](#) Feed en castellano
- [XML-eu](#) Euskarazko jarria

Discusiones * Suscribir... Discusiones no disponibles en <http://www.eibar.org/>

Inicio Bandeja de entrada... Jarria Blog - Microsof... Luistxoblog - Ingeles... EU 16:53

Ingelesen hilerria: <http://www.eibar.org/blogak/luistxo/eu>

Blog-ak eskolan

Blog-ak oso tresna baliagarriak dira hezkuntzan, komunikatzeko eta lanerako plataforma onak dira eta azkenaldi honetan asko hedatu dira. Arlo honetako *blog*-ak “Edublog” izenez ezagutzen dira.

Ikas-irakaskuntzaren munduan irakasle eta ikasleak *emirec*-ak dira eta *blog*-ek beren arteko komunikazio horizontala bultzatzen dute.

Blog-ak eskolan helburu desberdin askorekin idatz daitezke: ikasleak bere ikas-prozesuaz hausnarketa egiteko, irakasleak bere irakas-prozesuaz, ikaskideekin edo bakarka egiten ari diren eskolako lanen erregistroa eramateko, lanak taldeka eta lankidetzaz giroan egiteko tresna ezin hobea da, besteak beste, ikasleek ez dutelako zertan bildu eskola-orduetan bakarrik.

Ikasle eta irakasleen blog-eredu batzuk

Gorka Palazio EHUko irakasleak, *berriemale.com* sortu du ikasle bakoitzak bere bitakora idazteko. Zerbitzari hori doanekoa da eta kazetarigaien edota ikasle *blog*-zaleen arteko komunitate bat sortu dute. Komunitateko *blog*-zale hoberenei saria eman zaie. Hauek dira ikasle sarrituen helbideak:

<http://iker.berriemaile.com/>

<http://inhar.berriemaile.com/>

<http://txarroalde.berriemaile.com/>

Ikus ditzagun segidan hainbat irakasleren eta ikasleren ahaleginak:

Institutuko ikasleen *blog* batzuk irakurtzeko aukera dugu helbide hauetan:

Hau Carmen Laffon institutuko web orrian dago kokatuta:

<http://www.iescarmenlaffon.net/serna/alumnado/>

2004ean, Edublog Awards lehiaketan, munduko edublogen lehiaketarik ospetsuenean, Granadako Padre Manjon institutuko *blog*-a *blog* berri onena izendatu zuten. Hauxe da helbidea: <http://2dmanjon.blogia.com/>

<http://jlori.blogia.com/> *blog*-egile, irakasle eta hizlari den Jose Luis Orihuela Nafarroako unibertsitate pribatuko irakasleak, bere ikasleekin lan egiteko sortua.

<http://www.tiscar.com/> Tiscar Lararen *blog*-a dugu hemen. Madrileko Carlos III unibertsitatean kazetaritza irakaslea da.

<http://www.actilingua.net/> atari barruan dugu “blog d’una profe” izeneko Bea Marinen *blog*-a. Besteak beste, ikasgelan teknologia berriekin dituen borroka kontakten ditu. Teknologia hauek erabiliz ikasten ari denaren berri ematen du. Bere “esperimentuak” plazaratzen ditu, bai arrakastatsuak direnean, baita erdibidean geratzen denean ere. Hau guztia oso baliagarria da beste irakasle batzuentzat, berak zabalduko bideetatik igarotzea beti delako erraza goa.

José María González Serna irakaslearen *blog*-a “Cuaderno de clase” deitzen da.

Maria de Molina institutuko web orrian dago. Hauxe da helbidea:

<http://www.iesmariademolina.org/blog/>

<http://www.aula21.net> atarian Francisco Muñoz irakasleak “Aulablog21” *blog*-a sortu du. Bertan irakaskuntza eta teknologia berriak aztertzen ditu.

Blog kolektibo interesgarri bat “Aire” taldeak osatutakoa da. “Aire”, irakaslez eta kazetariz osatutako lan talde bat da. Hedabideetan alfabetatzea da talde honen helburua. Informaziorako eta komunikaziorako heziketan egiten dute lan. “Aire” taldeak *blog*-a ere badu. Hau da helbidea: <http://www.airecomun.com/blog/>. Bertan bost kategoria desberdin daude eta link interesgarri ugari.

Blog-ak hizkuntza geletan

Bigarren hizkuntza bat ikasten ari diren ikasleentzat oso egokiak dira *blog*-ak, batez ere motibazioari begira. Ikasleak ikasgelaren eremu itxitik atera eta munduarekin jartzen direlako harremanetan. Egun, sarritan ikasleek idazmena lantzeko dituzten traba eta jarrera ezkorren aurrean ere tresna baliagarria da *blog*-a, esan bezala, motibazioa nabarmen handitzen delako norberak idatzi duena, benetako hiztunek irakurriko dutela jakitean, eta ez bakarrik irakasleak edo ikaskideek.

Irakurri ez ezik, erantzunak ere jaso ahalko ditu eta benetako komunikazioa sortuko da eta “hizkuntza erreala” ikasten eta erabiltzen lagunduko dio ikasleari horrek guztiak. Gainera, kontuan izan behar da *blog*-a idatzi eta editatzeko ez dela informatikan trebea izan behar edo asko jakin behar, egindako txantilo batean idatzi eta kito. Eta horrek ikasleari ahalegin guztia edukian jartzen utziko dio eta ez tresnaren erabileran.

Artikulu honen hasieran aipatutako *blog*-motak kontuan hartzen baditugu ikusiko dugu idazmenaz gain, irakurmena eta entzumena ere lantzeko aukera ematen dutela *blog*-ek.

Blog-en erabilpen didaktiko nagusietakoa egunerokoak edo bitakorak egitea da. Gure esparruan bitakorak ebaluazioa egiteko tresnak izan daitezke, jarritako helburuak eta erabilitako irizpideak frogatzeko tresnak, hain zuzen ere. Tresna hauek, arestian esan bezala, bakarka nahiz taldeka erabil daitezke eta ikasleek zein irakasleek idatz ditzakete. Kontuan izango dugu beti, fidagarritasuna izateko, ebaluatzeko erabiltzen ditugun tresnek hiru izan behar dutela gutxienez. Beraz, bitakora horietako bat baino ez da izango.

Bitakora elektroniko horiek ere taldeko partaideak ideiak elkarrekin trukatzera sustatzeko egokiak izan daitezke edo ordutegi ezberdinetan dauden irakasleen arteko foruma osatu.

Blog-ek idazmena lantzeko ematen dituzten aukeren artean egunkaria edo aldizkaria osatzearena nabarmendu behar dugu. *Blog*-en izaeraren aldeetako bat oso lotuta dago kazetaritzaren munduari; horregatik, argitalpen hauetan azaltzen diren sailek dituzten ezaugarriak lantzen dituzten prozedurak inplementatzea gure eginkizunetako bat izan behar dela uste dugu. Berriak, iritzi artikuluak, argazkiak eta argazki oinak, liburu edo filmeen iruzkinak, zuzendariari eskutitzak, kronikak (herriko jaiak, txangoak, bidaiak, gertakizunak), kirolak, kultura ekitaldiak eta abar luze bat lantzeko aukera emango digute *blog*-ek.

Baina *blog*-etan idazten hasi baino lehen badira kontuan izan beharreko puntu batzuk. *Blog*-a egiteko arrazoiak eta helburuak oso garbi izatea komeni da. *Blog*-egilea ikaslea denean, lehenengoa idazten hasi aurretik, ezinbestekoa da *blog*-eredu desberdinak ikustea, irakurtzea eta aztertzea. Horrela argiago izango ditu egin beharreko lanaren nondik norakoak, eta, erabaki batzuk hartzeko irizpideak izango ditu.

Idatzi aurretik kontuan izatekoak:

- *Blog*-a idaztearen helburua zein den.
- *Zer idatzi*. Gaia aukeratu beharko du. Bere gustukoa edo interesekoa baldin bada, eta ez irakasleak inposatutakoa, errazago idatziko du eta gehiago inplikatu da lanean.
- *Maiztasuna*. Zenbatero idaztea eskatuko zaio?. Maiztasuna oso inportantea da, *blog*a ez bada maiz eguneratzen, irakurlerik ez du izango eta honen ondorioz ikaslea ez da hain motibatuta egongo idazteko.
- *Norentzat idatzi?*, kontuan izan beharko du zein izan daitekeen bere irakurlearen profila.
- Honek *idazteko estiloan* izango du isla.

Ikasleen *blog*-ak bakarkakoak nahiz taldekoak izaten dira. Taldeka idazten direnean, komeni da partaide batek editore-lana egitea, taldekideak idaztera sustatzea, idazten denaren kalitateaz arduratzea... Ardura hauek banatu ere egin daitezke, baina azken ardurak batena izan behar du, denen arteko lanak koherentzia izan dezan.

Postak tonu informalean eta hurbilekoan idazten dira. Egin nahi den *blog*-motarekin eta landu nahi den testu-motarekin bat etorri behar dute, bai edukiaren aldetik, bai formaren aldetik.

Bibliografia-iturriak aipatzea komeni da eta, ahal izatera, *linkatzea*, irakurleak jatorrizkoa irakurtzeko aukera izan dezan; eta horrela, bere ondorioak aterako ditu. Gure *blog*-en irakurleei, iruzkinak egiten badituzte, erantzun egin beharko zaie.


Blog-en kokapenaren gainean dauden aukera desberdinak:

- Irakaslearen edo ikasle baten *blog*-a, *blog*-egile independente moduan idatzia.
- Irakasleen edo ikasleen *blog*-ak, eskolako web orrian *blog*-komunitatea sortuz.
- Irakaslearen *blog* independentea eta bere *blogroll*-ean, hau da, beste *weblog* batzuekiko loturen zerrenda iraunkorrean, bere ikasleen *blog*-ak eskegita.

Blog-ek irakurmena lantzeko prozedurak onartzen dituzte eta ikasleak idazle-irakurle aktibo bihurtuko dituzte. Irakurmena berez gertatuko da, baina ez da hori guk bultzatu nahi dugun lanketa. Era askotako prozedurak erabil daitezke: *blog*-etan informazio zehatz bat topatzea, gai bati buruzko sarrerak edo postak irakurtzea, *post* zehatz bat irakurtzea prozedura zehatz bati jarraikiz, *post* bat irakurri ondoren erantzuna prestatzea, zuk idatzitako *postei* egindako erantzunak irakurtzea, etab...

Entzumenari dagokionez ere antzeko zerbait esan dezakegu, ohiko prozedurak erabiltzen ahal ditugu, baina ez da derrigorrezkoa izango gelan egotea, ikasleek euskaltegiko ordenagailu batetik, Kazetagine batetik, ziber batetik edo etxetik entzun eta ikus ditzakete *audioblog* eta *bideoblog*-etan dauden entzungaiak eta klipak. Ikus-entzuneko material horiek askotan izango dira sarean daudenak, blogariek jarritakoak, eta beste batzuetan irakasleek helburu baten arabera jarritakoak prozedura batekin lagunduta.

.4:



Volgako Batelariak: <http://www.eibar.org/blogak/volga>

Blog-ak ebaluatzen

Ikasleen *blog*-ak ebaluatzeko ohiko irizpideak erabiliko ditugu, batez ere gelan egiten ditugun moduko atazak eta jarduerak direnean, kontuan izanda lan honen berezitasunak. Nahiz eta hizkuntzaren lanketarekin zerikusi zuzenik ez izan, formatuaren diseinuan egindako ahalegina baloratu beharko dugu, irudirik badago, esaterako, testuaren eta irudien arteko egokitasuna.

Testuetan betiko parametroez gain, irakurlearengan jakin-mina eta interesa sortzen duten, gaiak harikoak diren ala ez, egindako loturak harikoak diren eta aipuen benetakotasuna neurtuko ditugu. Ikasle bakoitzak egindako sarre-

rak kontuan izango ditugu, komenigarria da aldez aurretik maiztasun bat adostea, eta ondoren, horren jarraipena egitea.

Laburbilduz

Blog-a lanabes berria da gure ikasleentzat. *Blog*-ak egiteko eta idazteko ez da aparteko prestakuntzarik behar, teknologia menperatu gabe ere ikasleek aukera izango baitute trebetasunak lantzeko. *Blog*-ek paperak dituen mugak gainditzen dituzte idazmenari beste izaera bat emanez, bai estiloan bai motibazioan. Irakurmena eta idazmena lantzeko aukeraz gain entzumenerako jarduerak antolatzeko ingurune baliagarria da.

Komunikazio-esparru berria sortzen ahal da taldekideen artean, taldekideen eta irakaslearen artean edo, soilik, irakasleen artean. Gainera euskaltegiaren jardueraren ebaluaziorako eta euskaltegia bera gizarteratzeko baliabide ona izan daiteke.

Bibliografia

Kontuan izan interneteko helbideak etengabe aldatzen ari direla, batzuk desagertu eta beste berri batzuk agertu; beraz, bibliografia honetan agertutako helbide elektronikoak artikuluko hau bukatzerakoan zeudenak dira.

Ashley, C. El uso de los Cuadernos de Bitácora o Weblogging: Otro tipo de sitios web. Red 10. alea (<http://www.um.es/ead/red/10>)

Batzuen artean. 2005. Aurrera! 17. alea 2005-eko martxoa. Boletín divulgativo de Nuevas Tecnologías en Informática y Telecomunicaciones. <http://es.Wikipedia.org>.

Bull, G; Bull, G; Kajder, S. 2004. La escritura con weblogs. Una oportunidad para los diarios estudiantiles. (<http://www.eduteka.org/>) 2004ko ekaina.

Carrera Plaza, J. 2004. Weblogs y Educación. Aulas con Software. Simo.

Orihuela, J. L. 2003. “¿Qué son las bitácoras y por qué deberían importarnos?”. (<http://www.unav.es/>) 2003ko urria.

Pomiés, P. 2003. La exigencia de una nueva alfabetización. Jose Luis Orihuela-rekin egindako elkarrizketa. (<http://weblog.educ.ar/>) 2003ko urria.

Artikuluaren aipatutako blog-ak

<http://eibar.org/blogak>
<http://www.sarean.com/>
<http://www.goiena.net/blogak>
<http://www.sustatu.com>
<http://berriemale.com>
<http://www.afondo.org/sombras/>
<http://www.fotolog.cl/>
<http://www.unjourdanslavie.org/>
<http://www.aceblog.com/>
<http://www.eibar.org/blogak>
<http://www.blogger.com/start>
<http://www.bloglines.com/public/euskaraz>
<http://gorpal.blogthing.com/>
<http://www.aula21.net/aulablog21/>
<http://bitakoras.com>
<http://bitakoras.net>
<http://bitakoras.org>
<http://tintachina.com/>
<http://es.movster.com>
<http://euskalherria.indymedia.org>
<http://jlori.blogia.com>
<http://www.tiscar.com>
“Blog d’una profe” (<http://www.actilingua.net/>)
<http://www.airecomun.com/blog/>
<http://2dmanjon.blogia.com/>
<http://www.iesmariademolina.org/blog/>